



2024ko ekaina

EUSKADIN EMISIO TXIKIKO EREMUAK (ETE) ARATZEKO ARARTEKOAREN PROPOSAMENAK

Herritarren parte-hartzea eta larrialdi klimatikoa, Arartekoaren Gomendio Orokorren arreta-guneak

Arartekoak azterlan zabala egin du, eta, bertan, 50.000 biztanletik gorako EAeko udalei (Bilbo, Barakaldo, Donostia, Getxo, Irun eta Gasteiz) proposatzen die beren udalerrietako emisio txikiko eremuen erregulazioa ahalik eta azkarren izapidetu eta onar dezatela. Halaber, eztabaida soziala sustatzeko eta berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko, airearen kalitatea hobetzeko eta garraiobide jasangarriagoetara aldatzeko neurriak onartzeko proposamena ere egiten du, eta iradoki sentsibiltate bereziko eremuetan, hala nola ikastetxeetan, oinezkoentzako ibilbideak bultza daitezela, lehentasuna emanez oinez eta bizikletaz egindako joan-etorriei, trafiko motordunaren gainetik.

ETEak arautzeko zerrendatzen dituen printzipioen artean, parte-hartzearena eta gardentasunarena eta informazioa eskuratzearena azpimarratzen eta garatzen ditu.



AUKERATUTAKO DOKUMENTUAK


Gaur egun, 2.800 pieza dokumental baino gehiago daude gure datu-basean gordeta. Hona hemen interesgarriak iruditzen zaizkigun dokumentu batzuen erreferentzia labur bat.



Guía para impulsar la formación ciclista en ciudades y territorios

RCxB eta Factoría de Ciclistas. 2023

Bizikleta bidezko mugikortasunari buruzko prestakuntza-gida honek prestakuntza ziklistaren estrategiak ezartzeko unean kontuan hartu beharreko elementu nagusiak identifikatzen ditu. Prestakuntzaren metodologia- eta antolaketa-ikuspegia jasotzen ditu, eta prestakuntza-programen inplementazioa bideratzeko eta errazteko jarraitu beharreko urratsak eta irizpideak deskribatzen ditu, erakundeen arteko lankidetzarako hainbat estrategia planteatzeaz gain.



El gran libro de las bicicletas

Testuen aukeraketa eta edizioa Lucía Barahona. Blackie Books. 2022

Liburuak hainbat testu biltzen ditu, non bizikleta den pertsonaia literarioa. Liburuak zazpi atal handitan banatuta dago, abesti, poema eta aipuez zipriztinduta. Bizikletei buruzko hirurogeita bat kontakizun, "munduko asmakizunik onenari" buruzkoak, Barahonaren arabera.



La Bicicleta y la Ciudad. 19. Kongresu Iberikoa. Komunikazioak eta edukiak

Zikloteka. Bizikletaren dokumentazio-zentroa. 2023

Argitalpena ConBici bizikletaren defentsarako koordinakundearen eta Ziklotekaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren emaitza da, eta 2023ko martxoan Cosladan egindako *La bicicleta y la ciudad* 19. Iberiar Kongresuan aurkeztutako 41 komunikazioak biltzen ditu. Memoranduma sei ardatzetan antolatuta dago: mugikortasuna, legeria eta gobernantza, sustapena eta prestakuntza, zikloturismoa, osasuna eta ingurumena.

Mairena del Aljarafeko Bizikletaren Plan Zuzentzailea

Mairena del Aljarafeko udala. 2021


Mairena del Aljarafeko Bizikletaren Plan Zuzentzaileak gidalerroak eta esku-hartze ildoak ezartzen ditu bizikleten mugikortasuna erabilera desberdinetan arautzeko: hirikoa, kirolekoa eta aisialdikoa. Planak bidegorrien sarea definitzen du, efikazian, eraginkortasunean eta segurtasunean oinarrituta, eta trafikoa baretzeari buruzko proposamenak egiten ditu; era berean, bizikletaren erabilera sustatzeko, prestatzeko eta informatzeko ekintzak garatzen ditu inplementatu beharreko hiri-espazioetan. Hainbat hiritako bizikleta publikoko sistemak ere aztertzen ditu.



Las bicicletas de pedaleo asistido y las políticas locales de movilidad

Sanz Alduán, Alfonso. Zikloteka. 2023

Ikerketak bizikleta bidezko mugikortasun-politika integraletan pedalei eragiteko laguntza duten bizikletak parte hartzeko duten modua ulertzen lagundu nahi du. Bereziki, azterlanak gogota-esparru bat ezartzen du, tokiko gobernuek pedalei eragiteko laguntza duten bizikletak hedapena kontuan har dezaten beren mugikortasun orokorreko eta txirringarritako politiketan, beren eskumen-esparruaren barruan.



Bicicleta o Barbarie

Rodríguez González, Carlos. Biciudadana argitaletxea. 2024

38 bizikleta-kontakizun biltzen dituen liburua, saiakera eta fikzioa gai anitzekin nahasten dituena. Bizikleta egunero garraiobide gisa erabiltzeko zer dakarren ere islatzen du. Rodríguez *30 Días en Bici* proiektuaren sustatzailea da. Liburuak auto-edizioa prozesu kolektibo batean editatu ahal izan da, bizikleta-kulturaren eragile gisa. *ConBici-k aukeratua.*



La importancia de la bicicleta. Un análisis del papel de la bicicleta en la transición hacia una movilidad urbana más sostenible

Marqués Sillero, Ricardo. Universidad de Sevilla argitaletxea. 2017

Bizikletak, hiriko mugikortasunean dauden arazoak konpontzeko beharrezko elementu gisa, mundu osoko hirietara itzultzearen arrazoiak aztertzen ditu liburuak. Lanaren tesi nagusiak dio ezinezkoa dela arazo horiek konpontzea bizikletari, garraiobide, kohesio-natzaile eta, aldi berean, hirietako gainerako mugitzeko moduen integratzaile gisa eginkizun nagusi bat eman gabe.

Uso de la bicicleta como propuesta para mejorar los hábitos de vida saludable

Alejandro Lizana, Omar H. Contreras, Lolo Perez, Carlos A. Villanueva. Huánuco, 2018


Ikerketaren helburua da zehaztea zein neurritan eragiten duen bizikletaren erabilerak UNHEVAL Aplikazioko Ikastetxe Nazionaleko Bigarren Hezkuntzako ikasleen bizi-ohitura osasungarrien hobekuntzan. Azterlanaren lagina bigarren hezkuntzako VI. zikloko 71 ikaslek osatzen dute. Emaitezke agerian uzten dute bizikletaren erabilerak eragin positiboa duela ikasleen bizi-ohitura osasungarrien hobekuntzan.



Luchar por la calle. Manual para una revolución urbana

Janette Sadik-Khan, Seth Solomonow. Capitán Swing. 2024

Janette Sadik-Khan New Yorkeko Garraio Komisarioak New Yorkeko kaleak eraldatu zituen oinezkoei, txirindulariei, autobusei eta berdeguneei lekua egiteko. Saiakerak, Seth Solomonow prentsa-idazkariarekin batera idatzia, aldaketa lortzeko egin zituzten borrorak deskribatzen ditu, beste hiri batzuetan erreplika daitezkeen jakinduria eta aholku praktikoak emanez. *ConBici-k aukeratua.*



CICLOSPERA #47

Ciclosfera izan zen udaberriko aldizkariaren gai nagusia. Baina ez hori bakarrik: musika ere egon zen Red Hot Chili Pepperekin, zinema *Mummy* filmarekin, hirigintza Kroazian edo txirindularitza txoko bat Bordelen. Bo Bartletten koadroak, Holandako tulipanak. Betikoa, inoiz ez bezala.



As bicicletas si son para Galicia

VVAA. Patricia Buxán Outeiro (Koordinatzailea). Catro Ventos Editora. 2023

Gida praktikoa honek Galiziako hainbat testuingurutan bizikleta erabiltzen duten kolektibo eta norbanakoei egindako elkarrizketak biltzen ditu, aholku praktikoak eta irudiz lagundutako apunte terminologikoekin batera.



Andar en Bici. Cycling / Bizikletan. Nº 19

Zenbaki honetan askotariko ibilbideak jasotzen dira. Madagaskarreko Côte de la Vanilletik Europa erdialdeko Donauradwer ibilbideraino edo Portugalgo erdialdeko Dãoko Ekopistaraino, baita Arratiako Haranetik barrena edo Ampostatik L 'Esluga de Francolíra doan ibilbide leun bat ere. Txirindulari baten beharra edo beste emakume batzuekin bidaiatzeko esperientzia gai interesgarriak dira, baita Madrilgo eta Bartzelonako bidegorrien diseinua aztertzea ere. Hedy Lamarren bitzta aztertzen jarraitzen da zenbaki honetan.

ALBISTEAK

Europako Parlamentuak airearen kalitatea hobetzeko baldintza berriak ezarri ditu



Airearen kalitateari buruzko Zuzentarau berriak hobekuntzak sartu ditu airearen kalitatearen lege-esparruan, jendeari informazio gehiago eta hobe emanaz eta arazoaren larritasunarekin bat datozen zigorrak ezarri. Gainera, aldizkako berrikuspen-mekanismo bat ere ezartzen du, EBri aplikatzekoak zaizkion arauak osasuna eta ingurumena babesteko Zuzentarauak dituen helburuetarako egokiak izaten jarraitzen duten egiaztatzeko, eta, hala, beharrezkoa balitz, beste kutsatzaile atmosferiko batzuk sartzeko.

Logroño bidegorrien itzulera ikertuko du Europako Parlamentuak



Europako Parlamentuko Eskara Batzordeak tramitera onartu du Logroño en Bici-Ecologistas en Acción elkarteak aurkeztutako salaketa. Salaketan argudiatzen da Logroñon bidegorriak eraikitzeke Europako funtsak gaizki erabili direla, hiriko Udalak errei horietako batzuk kendu dituelako. Eskara Batzordeak Europako Parlamentuko Aurrekontu Kontrolerako Batzordeari bidali dio eskaera, azter dezan. Valentzia, Elx, Gijón, Logroño, Valladolid edo Palma bezalako hirietan bidegorriak kentzea eta Europako funtsak gaizki erabiltzea ere salatu da Batzorde horretan.

Herritarren zientzia. Eskola-inguruneetako airearen kalitateak ez ditu betetzen OMEren estandarrak



Ekologistak Martxan taldearen txosten batek nitrogeno dioxidoa nazioarteko gomendioa lauokiztu duten mailetan identifikatu du Espainiako bederatzita udalerritako 114 ikastetxetan.

AGENDA

Hirien Foroa



Ekainak 18-20. Madril.

Madrilgo Hirien Foroaren seigarren edizioak hiri-erronka nagusiei helduko die, plangintzan, deskarbonizazioan, zirkulartasunean, digitalizazioan eta naturan, gizarte-berrikuntzan eta mugikortasun jasangarri berrietan oinarritutako konponbideetan aldaketak ahalbidetzen dituzten ekonomia eta estrategia berrien ikuspegitik.

Velo-city 2024



Ekainak 18-21. Ghant (Belgika).

Txirrindularitzaren bidez konektatuz gaia izango da ardatz Ghanten egingo den edizioan. Konektibitatearen ideia mugikortasuneko faktore erabakigarri gisa eta bizikletaren funtzioa izango dira honako gai hauen ardatza: pertsonen eta haien komunitateen arteko konexioa; lurralde, eskualde eta hirien arteko lotura; intermodalitatea eta bizikletaren eta beste modu batzuen arteko lotura; edo bizikletaren erabileraren eta sektore industrialen, energetikoen, osasunaren edo enplegu berdearen arteko lotura.

Hiri-mugikortasun jasangarriari buruzko herritarren foroa. Ararteko



Irailak 11. Bilbo.

Hiri-mugikortasun jasangarriko eskubidea eta haren betebeharrak herritarren ikuspegitik izango dira Arartekoak antolatutako Herritarren Foroaren helburu nagusia. Guneetako batek hiriko txirrindularien elkarrekin Euskadin bizikletaz behar bezala mugitzeko aurkezten dituzten proposamenak bilduko ditu.

Euro Mobility Jaialdia 2024



Irailak 20-22. Girona.

Jaialdi formatuan eta aire zabalean antolatu ohi den topaketa hau mugikortasunaren eraldaketaren eragile nagusien arteko topagune eta elkarrekin gunea da. Erakusketa-gunea bisitatzeko aukera izateaz gain, tailerrak, hitzaldiak eta produktu-probak antolatu dira, "hiriko mugikortasunari", hiriko bizikletei eta bestelako zikloei buruzko atal bereziarekin.

Eurovelo Conference



Irailak 23-25. Vyborg, Dinamarka.

EuroVelo eta Turismo Ziklista Konferentzia txirrindularitza eta turismo sektoreetan parte hartzen duten eragileak biltzen dituen ekitaldi profesionala da. EuroVelori, zikloturismoari eta nazioarteko txirrindularitza-sareei eta -ibilbideei buruzko ezagutzak eta jardunbide egokiak transmititzeko antolatuta dago.

Parcel + PostExpo



Urriak 22-24. Amsterdam.

Paketeen entregaren industrian, merkataritza elektronikoen logistikan eta posta-zerbitzuetan oinarritutako ekitaldia da. Erakusketaz gain, hitzaldiak eta tailerrak ere eskaintzen ditu, eta pakete-entregaren jasangarritasuna aztertuko duen gunea ere bai. Ziklogistikian eta bizikleta elektrikoetan espezializatutako erakusmahaiak egongo dira.

CONAMA



Abenduak 2-5. IFEMAko Norte Konbentzioen Zentroa. Madril.

Ingurumenari buruzko Kongresu Nazionalaren 6 ardatz tematikoen artean mugikortasun jasangarriari buruzko atala dago. Ardatz hori mugikortasun jasangarriko trantsizioan oinarrituko da, ingurumena eta osasun publikoa errespetatuko dituen. Garraio publikoa, bizikleta, ibilgailu elektrikoak eta mugikortasun jasangarriko beste modu batzuk sustatzeko politikak eta ekimenak eztabaidatuko dira.



Zikloteka. Bizikletaren Dokumentazioa Zentroa

Zikloteka bizikleta bidezko mugikortasunean espezializatutako dokumentazio-zentroa da, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Cristina Enea Fundazioak sortutakoa. 2016. urtean ireki zituen ateak Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean, Donostian.

Buletin honetan interesekoak izan daitezkeen argitalpenak eta bizikleta bidezko mugikortasunarekin lotutako albisteak biltzen ditugu, baina, horrez gain, zuen laguntasuna jasotzea ere nahiko genuke. Bizikleta bidezko mugikortasunari buruzko dokumentuak, bideoak, kartelak... badituzue edo haien berri baldin baduzue, guri helaraztea eskertuko genizueke.

Telefonoz deitzen badiguzue (943 453 526) edo mezu elektronikoko bat bidaltzen baduzue (zikloteka@donostia.eus) gustu handiz erantzungo dizuegu, eta esku artean duzuen informazioa edo dokumentazioa nola jaso eta Ziklotekako dokumentu-funtsean nola txertatu adostuko dugu.

Zikloteka. Bizikletaren Dokumentazio Zentroa

Mandasko Dukearen Pasealekua, 66. 20012 Donostia

T: 943 45 35 26

zikloteka@donostia.eus

www.cristinaenea.eus/zikloteka

Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 09:30 - 18:00*h.

Larunbata: 10:00 - 14:00 / 15:00 - 19:00h.

Igande eta jai-egunak: 10:00 - 14:00h.

*Ordubete gehiago ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean

